

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Barrutia HLHI

Aurkibidea

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa	XX
2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak	XX
3. Helburuak eta lehentasunak	XX
3.1. Helburuak	XX
3.2. Lehentasunak	XX
4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak	XX
4.1. Curriculumaren esparrua	
4.1.1. <i>Metodologia-aukerak</i>	XX
4.1.2. <i>Ebaluazioa</i>	XX
4.1.3. <i>Hezkuntza-eskaintza</i>	XX
4.1.4. <i>Aniztasunari erantzutea</i>	XX
4.1.5. <i>Orientabidea eta tutoretza</i>	XX
4.1.6. <i>Hizkuntzen erabilera eta tratamendua</i>	XX
4.1.7. <i>Prestakuntza eta berrikuntza</i>	XX
4.2. Antolamenduaren esparrua	
4.2.1. <i>Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa</i>	XX
4.2.2. <i>Parte hartzeko eredia</i>	XX
4.2.3. <i>Bizikidetzak</i>	XX
5. Iraunaldia	XX

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa

↳ Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.

Barrutia LHI Busturialdean kokatuta dagoen ikastetxea da eta eskualdeko hamaika herritako ikasleak ikastetxe honetara datoz: Arratzu, Ajangiz, Ea, Errigoiti, Gernika, Ibarrangelua, Elantxobe, Mendata, Ereño, Kortezubi eta Nabarniz. 288 ikasle daude Haur eta Lehen Hezkuntza etapetan banatuta.

Ikasleak herri desberdinetakoak izatea ezaugarri esanguratsua da. Alde batetik faktore aberasgarria da, herri desberdinek, ohitura eta identitate desberdinak dituzte eta dibertsitatea beti da aberasgarria, baina, bestetik, talde kohesioa ez du errazten, eta, horregatik, tutoretza eta harrera planetan arreta berezia jarri behar da eremu hau lantzeko.

Eskualde honetan euskaraz hitz egiteaz gain, euskaraz bizitzea ere indar-gunea da. Biztanle gehienak euskaldunak dira eta horrek gure eguneroko bizitzan du eragina: gure jarrerak, pentsaerak eta harremanak euskararekin estuki lotuta daudela kontuan hartu behar dugu. Eskolak, ikasleak errealitate sozialean murgiltzen ditu, euskal giroan, berdintasunean integratuz. Ikastetxeak, hezkuntza ardatza euskara duela, pertsona euskaldun eleaniztunak hezten ditu, hartara, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera bermatuko du (gaztelania eta ingelesa).

Zonaldeko egitura ekonomikoari dagokionez industria eta zerbitzuak dira jarduera nagusia, baina abeltzaintzak eta nekazaritza ere badute bere presentzia. Historian zehar baserri bizimoduari atxikitako herriak izan dira gure ikasleen jatorrizko batzuk; familia mailako ustiaketan oinarritua. Baina gaur egun atzerakada nabarmena jasan duen alorra da hau eta biztanleri aktiboaren oso portzentaje baxuak jarduten du sektore honetan. Aipatu nahi genuke alor honetan ematen ari den mugimendu soziala, non eskolak zer esan handia duen: “Jangurie Ekimena”, Urdaibaiko eskola jantokien ekimena da eta helburua eskola jantoki eredu osasuntsuago, hurbilago eta bidezko baten alde lan egitea da, kalitatea hobetuz eta inguruko lehen sektoreari lagunduz.

Barrutiako “Gurasoen Elkarteak” dagoeneko prest dauka gure eskolarako jantoki eredu propioa garatzeko proiektua, eta OOGak gure jantokia eredu honetan bideratzeko eskaera egin dio Hezkuntza Sailari, eta haren erantzunaren zain gaude. Eskolak hasieratik eman zion baietza familien proposamen honi eta ahalegin guztia egingo du Zuzendaritza Taldea bitartekari dela helburu hau lortu ahal izateko.

Familien ikasketa mailari dagokionez, eskualdeko hezkuntza mailan nabarmenak dira bigarren mailako eta goi mailako ikasketak dituzten biztanleak, eta eskolako familien formazio maila horren isla dela esan dezakegu. Familiek seme-alaben hezkuntza inguruan duten interesa nabaria da eta orokorrean erantzukizun maila altua erakusten dute.

Momentu honetan, eskolako etorkinen portzentajea %5 da. Etorkinen jatorria kontuan izanda, Europar Batasunekoak (Errumania), eta magrebiarrak dira nagusi.

IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA

Barrutia Ikastetxea landa eremu baten dago kokatuta. Kokapen honek ikasleen inguruarekiko eta jasangarritasunarekiko ohitura baikorrak suspertzeko aukera ezin hobekak eskaintzen ditu eta honi esker hainbat urtetan Eskola jasangarriaren agiria jaso dugu, azkena 2019an.

Bi eraikin nagusi daude: kiroldegia eta eraikuntza nagusia. Honetan, eskolako zerbitzu eta gela guztiak batuta daude. Herriko Haur Eskola ere eraikin berean dago kokatuta. Beheko solairuan Haur Hezkuntza eta zerbitzu orokorrak daude, jantokia, liburutegia, motrizitate gela, zuzendaritza eta irakasle gela. Lehenengo solairuan berriz, Lehen Hezkuntzako gelak, laguntza gelak, musika eta informatika gela ditugu.

Instalazioak baldintza onetan daude, azken urteetan berrikuntza lanak egin direlako Udal desberdinen laguntzarekin.

Eraikin publiko gisa, eskola eta bestelako instalazioak, ikasle eta familientzat zabalik daude eta hainbat eskolaz kanpoko ekintza burutzen dira bertan.

Ikastetxearen eremu berean Barrutialde BHI dago, jantokia eta kirol instalazioak partekatu egiten ditugularik. Partekatze egoera hau eta ikastetxe berritasuna oso lagungarria da ikasleen hezkuntza ibilbidea errazteko, 0 urtetik 18 urtera hezkuntza eskaintza eskainita.

Ikasleen %95ek jantoki eta garraio zerbitzuak erabiltzen dituzte. Eskolan bertan prestatzen da jatekoa.

Arratsaldeko saio lektiboen bukaeratik garraioaren irteera ordura arte ordubete dago (garraioa Barrutialde institutuarekin batera baita). Ordu horretan ikastetxeko ikasle guztientzat eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dira.

Honez gain, jarduera hauetan parte hartzen ez duten ikasleen zaintza Hezkuntza Sailak kontratatutako monitoreen ardurapean daude (garraio zainzaileak)

1

Hezkuntza beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaizetan oinarriturik.

Oinarrizko Hezkuntzak guztion hezkuntza eskubidea bermatu behar du; Beraz, zuzentasun eta justizia sozialaren planteamendu etiko batetik, eskolak aukera berdintasuna eskaini behar du, inolako bazterketarik gabe. Horrez gain, konpentsatu egin behar ditu desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak genero berdintasunaren ikuspuntutik.

Horregatik gure bidea eskola inklusiborantz doa, eskura ditugun tresnak erabiliz saiatzen gara ikasle guztiei eskaintzen hezkuntzan aurrera egiteko aukerak eta laguntza; nor bere autonomia garatzeko gai izateko. Guzti hau gauzatzeko martxan ditugu hainbat proiektu-protokolo: Aniztasunari erantzuteko plana, harrera plana....

Ikasleen irteera profila izango da helmuga, beti ere aurreko paragrafoan aipatutakoa kontuan izanik, eta ikasleen profil egokia lortzeko, eskura ditugun tresna eta informazio iturri guztiak erabiliko ditugu, ikasleen eta bere inguruaren ezaugarriak, emaitza akademikoak, gure baliabideak, eta guzti hauekin urtero Ikastetxeko Ikasturteko Planean eskola jarduera antolatuko dugu. Dokumentu hau gure jardueraren oinarri izango da, eta taxuz ebaluatuko da ikasturteko memorian.

Eskola, estamentu guztien partaidetza bultzatzen saiatzen da, sinesten dugulako eskola “komunitate hezitzailea” izan behar dela.

📌 Ikastetxearen hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.

Eskolan bi etapa daude, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Haur Hezkuntza bi ziklotan banatuta daukagu, 2-3 urte eta 4-5 urteko mailak; Lehen Hezkuntza, berriz, hiru ziklotan banatzen dugu; 1-2. mailak lehenengo zikloa, 3-4. mailak bigarren zikloa eta azkenik 5-6. mailak hirugarren zikloa.

Lehendabiziko taldekatzea eskolatzearen hasieran egiten da eta erabiltzen diren irizpideak ama hizkuntza, neska-mutil kopurua, jatorrizko herria, eta adina dira, beti talde anitzak sortuz. Lehen Hezkuntzara igarotzean taldekatzea berriro egiten da, Lehen Hezkuntza ikastera Natxituako Haizeder Haur Hezkuntza Ikastetxeko ikasleak etortzen dira eta honek taldekatzean eragina izaten du.

Ziklo bakoitza irakasle talde batez osatuta dago: tutoreak eta espezialistak. Talde honek koordinatzaile bat du, eta ziklo koordinatzaile guztiek zuzendaritza taldeko partaideekin batera (jantokiko arduraduna barne) batzorde pedagogikoa osatzen dute. Batzorde pedagogikoaren funtzioa zera da: eskolako arlo pedagogikoa bideratzea. Batzorde hau astero biltzen da eta ondoren ziklo batzarrak egiten dira. Proiektuetako arduradunak ere ahal den neurrian batzorde honen partaide dira.

Honez gain, maila bereko irakasleek koordinazio lanetan aritzeko saio bat dute finkatuta ordutegi barruan.

Beste koordinazio eremu batzuk:

Klaustroa, Zuzendaritza-guraso elkartearen artekoa, Zuzendaritza-garraio/jantoki monitoreekin, Zuzendaritza-eskolaz kanpoko ekintzetako arduradunekin; Heziketa Bereziko taldearen koordinazioa, eta kanpoko eragileekin: Gizarte Zerbitzuak, Udal Zerbitzuak, Berritzegunea, Osakidetza,UPI,.....

Irakasleen formakuntza, Ikastetxeko Ikasturteko Plana egitean sortzen diren beharriaren arabera bideratzen da, Hezkuntza Sailak eta beste entitate batzuk bideratzen dituzten eskaintzetan parte hartuz: PEG, ikastaroak, mintegiak...

Prestakuntza klaustro edo etapako irakasle guztientzat planteatzen da, hezkuntza praktikan eragingarriagoa delako.

2. Printzipioak, baloreak eta nortasun-ezaugarriak

Gure eskola publikoa, euskalduna eta eguneroko errealitatean murgilduta bizi den eskola gaurkotua da. Beraz:

- Publikoa den heinean ,inklusiboa, anitza eta parte-hartzailea izango da; hau da, aniztasunaren aldeko ikastetxea, giza eskubideak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioetan oinarritua; berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena.
- Euskalduna izanik eta ingurunean errotua, Euskara eta Euskal kultura ardatz dituela, ikasle euskaldun eleanitzak hezi nahi dituen, hizkuntzen trataera integratua eta integralaren bitartez.
- Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea: Hezkuntza emozionala lantzen duena.
- Eguneroko errealitatean murgilduta bizi den eskola:
 - Ikasleei herritar aktibo eta arduratsuak izateko baliabideak eskaintzen duena.
 - Jakin-mina eta eredu jasangarria xede dituzten ikasleak hezten duena.
 - Gaitasun desberdinetan oinarrituta, ikasleen eguneroko bizitzan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko tresnak eskaintzen saiatzen den eskola.

3. Helburuak eta lehentasunak

3.1. Helburuak

1 helburuaren formulazioa

- Ikasle guztien egiazko inklusioa xede duten hezkuntza-proposamenak lehenestea.
- Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan heztea, sexuaren, arrazaren edo erlijioaren araberako bazterketa-jokabideak ekiditeko; gatazkak elkarriketaren eta parte-hartze arduratsuaren bidez konponduz.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Publikoa den heinean, inklusiboa, anitza eta parte-hartzailea izango da; hau da, aniztasunaren aldeko ikastetxea, giza eskubideak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioetan oinarritua; berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena.

2 helburuaren formulazioa

- Ikasleen garapen emozionala bultzatzea, hazteko eta pertsona-arteko harreman positiboak eraikitzeke trebetasunak landuta.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea: Hezkuntza emozionala lantzen duena

3 helburuaren formulazioa

- Eskola-esparruko talde guztien komunikazio-hizkuntza euskara izango da (jangelan, kiroletan, eskolaz kanpoko jardueretan, etab.).
- Euskara ardatz izanda, herritar eleanitzak hezi, beste hizkuntzetan komunikazio maila egokia lortuz.
- Ingurunearekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan heztea, tokiko kulturaren murgilduz.
- Gure ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen, toki-erakunde eta elkarte sozialen, kulturalen, etab., arteko lankidetzaren sustatzea, gure hezkuntza-jarduera aberasteko.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskalduna izanik eta ingurunean errotua, Euskara eta Euskal kultura ardatz dituela, ikasle euskaldun eleanitzak hezi nahi dituen, hizkuntzen trataera integratuaren bitartez.

4 helburuaren formulazioa

- Erabaki pertsonalak modu arduratsu eta askean hartzeko gaitzea, beren zentzumen kritikoa garatuz eta erabilaraziz eta auto-estimua areagotuz.
- Ikasleek, eguneroko zeregin eta erabakiak modu arduratsuan har ditzaten laguntzea, zentzu kritikoa garatuz eta norbanako autonomia bultzatuz.
- Ikasle guztiengan ikasteko nahia sustatzea, eta gero eta modu autonomoagoan ikasteko gaitzea.
- Ikastetxeko ikasle guztiek beren gaitasunak ahal beste garatzea eta eskuratutako gaitasun horiek egunerokotasunean erabiltzen erakustea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Eguneroko errealitatearen murgilduta bizi den eskola:

- Ikasleei herritar aktibo eta arduratsuak izateko baliabideak eskaintzen duena.
- Jakin-mina eta eredu jasangarria xede dituzten ikasleak hezten dituen.
- Gaitasun desberdinetan oinarrituta, ikasleen eguneroko bizitzan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko tresnak eskaintzen saiatzen den eskola.

3

helburuak eta lehentasunak

3.2. Lehentasunak

- Irakasle eta irakasle ez diren langileen prestakuntza.
- Curriculumaren eguneratzea: berrikuntza proiektuak, gaitasunak lantzeko praktikak (arazo egoerak) lan kooperatiboa.
- Elkarbizitza: tutoretza plana, familien partaidetza.
- Euskara eta euskal kulturaren parte hartze aktiboa izan.
- Jasangarritasuna: Agenda 21

4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak

4.1. Curriculumaren esparrua

↳ Metodologia-aukerak

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako ezaugarri nabarmena da haurrek modu globalean adierazten dituztela gauzak, izaten dituztela harremanak eta hausnartzen dutela ingurua. Errealitatera hurbiltzeko prozesua globala da, eta prozesuak emaitza onak izango ditu aukera ematen badu ezartzen diren harremanak eta eratzen diren esanahiak zabalak eta dibertsifikatuak direnean. Izan ere, adin txikiko haurrek erritmo, interes eta behar desberdinak dituztenez, kontuan hartu behar dira bai ikasgelako espazioaren eta denboraren antolakuntza planifikatzeko, bai eta eskolako jardueraren plangintza egiteko ere.

Jolastuz ikasi

Adin horretako haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude. Jolasaren bitartez, ulertzeko moduak antolatu, gaitasunak probatu, esperientzia berregin eta bere emozioak menderatzen saiatzen dira. Beraz, jolasa ikasteko tresna pribilegiatua denez, jarduera nagusia izan behar da, eta hainbat egoera, bizipen, ezagutza eta gaitasun bateratzeko erabiliko da. Jolas mota guztiak (heuristikoa, soziala, sinbolikoa, psikomotorra...) ikaslearen gaitasunen garapen integrala bultzatzeko erabiliko dira gune desberdinetan, horregatik, berebiziko garrantzia hartzen du haurren esperientziak eta elkarrekintzak bideratuko dituzten testuinguruak aberatsak izateak. Lau gune bereiziko dira: matematika zientzia eta esperientziazko, artea, hizkuntzak eta sinbolikoa. Gune hauek berariazkoak diren material eta baliabideekin osaturiko ikasgune espezializatutak dira, ikasle bakoitzaren ahalmenak eta jakintzak modurik gorenean sortzeko, azalarazteko eta bultzatzeko prestatuak daude, afektuak, sormena, komunikazioa, abstrakzioa eta sozializazioa garatuz.

Jakintzak maila sekuentziatuan lantzen dira, ikasle bakoitzaren premiak eta erritmoak kontuan hartuz, guneotan ikaslea da nagusi eta esku hartze guztiak ikaslearen ongizatea, autonomia eta nortasuna bultzatzeko antolatzen dira.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzan, testu-liburua erabiltzen da ikaslearen oinarrizko material gisa baina lan eraginkor, autonomo eta sortzailearen garrantzia ahaztu gabe, beti ere ikaslearen irteera profila kontuan harturik, hurrengo etapara joateko behar dituzten gaitasun eta estrategiak lantzeko aukerak eskainiz. Irakasle-talde desberdinen gain dago maila bakoitzeko curriculum materiala antolatzeko eta egokitzeko ardura, eta programazioak zein arazo egoerak planifikatzerakoan

hezkuntza gaitasunak izango dituzte kontuan ; haien gain daude, halaber, curriculum-ean bideratu beharreko egokitzapenak, ikasleen IKT-en – Informazioa eta Komunikaziorako Teknikak – ezagutza eta erabilera bultzatuko dira; ikaskuntza-irakaskuntza prozesua erraztu eta indartzen duen tresna gisa; ikasleak Interneten erabileran, eta ordenagailuaren eta adin bakoitzari dagokion softwaren oinarritzko ezagutzan trebatuz. Ezagutza hauen sekuentzializazioa eginda dago eta tailerretan lantzen da ikasgai hau. Talde txikiak egiten dira eraginkorragoa izan dadin lan saioa. Honez gain, eguneroko lanean, curricula lantzeko tresna digitalak erabiliko dira.

📄 Ebaluazioa

Ebaluazioa hezkuntza prozesuan ezinbesteko elementua dugu, eta hezkuntza-prozesua eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu.

Tutorearen eta irakasle-taldearen ardura da hezkuntza prozesuaren ikuskaritza eta ebaluaketa, ikaskuntza prozesuaren eta irakaskuntza jardueraren ETENGABEKO EBALUAKETAN oinarrituta. Horretarako, kurtso hasieran HASIERAKO EBALUAZIOA, informeak, PIREak, soziogramak dugu abiapuntu; ondoren, EBALUAKETA HEZIGARRIAN, kontuan hartzen dugu egitekoen, partaidetza-mailaren eta jarduera desberdinen jarraipen-mailaren gaineko azterketa.

📄 Hezkuntza-eskaintza

Barrutia HLH ikastetxeak haur eta lehen hezkuntza ikasketak eskaintzen ditu. Eraikuntza berean Barrutia Haurreskola dago eta alboan, berriz, Barrutialde BHI dago. Ikastetxe hauekin harremana estua da, eta, ahal den heinean hezkuntza plangintza eta jarduera batzuk batera egiten dira. Nahiz eta zentro independenteak izan, Hezkuntza etapa guztiak eremu geografiko hain hurbilean eskaini ahal izatea ez da oso ohikoa hezkuntza publikoan eta gure kasuan indargune bat da.

📄 Aniztasunari erantzuna

Aniztasunari erantzuteak haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta ezaguera-estiloari egokitutako erantzuna eskaintzea dakar berekin. Banako bakoitzak gaitasun batzuk ditu, bere garapen-erritmoa du eta bere ezaugarriak modu pertsonalean eta dinamikoan eraikitzen ditu, bizitzen dituen esperientzien, bere jatorri sozial, ekonomiko eta kulturalaren eta, nagusiki, prozesu horretan ematen zaion laguntzaren arabera.

Eskolak, ildo beretik, egon litezkeen abiaburuko aldeak orekatu behar ditu. Horretarako, ikasleek garapen bidezkoa, orokorra eta harmonikoa izan dezaten ahalbideratuko duten hezkuntza-esperientziak, esperientzia kulturalak, teknologikoak ... eskaini behar ditu. Irakasle-taldeak haurren alde pertsonalak kontuan hartu eta errespetatu egin behar ditu, eta zenbait programazio eta proposamen egokitu beharko ditu. Programazio eta proposamen horiek, gauzatzen direnean, irakaskuntza-prozesua ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokitzeko aukera eman behar dute (HIBP/CEI)

↳ Orientabidea eta tutoretza **gehitu banakako tutoretza**

Tutoretza-lanaren helburua da, ikasleak bere burua ezagutu eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista senti dadila.

Tutore taldeari dagokio tutoretza plana egitea eta garatzea, aholkulariaren laguntzaz. Irakasleak, ikaslea ezagutu behar du, konfiantza eta ziurtasuna eman, eta berengan konfiantza jarri. Ikasle guztiei jo muga zabalak eta aukera handiak dituztela transmitituko die, ikasteko gai direla sentiaraziz.

Tutoretza planak taldean tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditu. Horrez gain, tutorearen esku-hartzea sistematizatzen du, ikasleen banakako eta taldeko jarraipeneko hainbat lan eremutan, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan.

↳ Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

Gaur egun, gure hezkuntza sistemak elebitasuna sendotzea du erronka eta horrez gain, ikasle eleaniztunak lortzea, beren irteera profilean bizitzako eremu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz egoki eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasun nahikoa izango dutenak eta horrez gain, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, gai izango direnak esparru akademikoan, pertsonalean eta gizarte esparruetan modu egokian komunikatzeko.

Gure eskaintza eleanitza da: lehen hezkuntzako 4. Mailatik hasita arlo bat ingelesez ematen dugu eta eredu honek jarraipena du bigarren hezkuntzan. Hizkuntza arloan gure helmuga Hizkuntzen trataera integratua eta integrala izango da. Integratua esaten dugunean zera adierazi nahi dugu Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landu behar dela, baina denen artean partekatua dutena, ikasleak egoki eta eraginkor erabili ahal izan dezan egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza landuko dela.

Integrala esaten dugunean berriz, esan nahi dugu, hizkuntza-gaiak ematen ez dituzten irakasleen ardura ere badela hizkuntza-konpetentzia garatzen laguntzea.

Erabaki guzti hauek batzen dituen tresna Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua dugu, gogoeta bidez eta erabaki adostuen bidez, alderdi didaktiko metodologikoei zein antolaketari dagozkien eremuetan eragiteko tresna, hain zuzen ere.

📌 Prestakuntza eta berrikuntza

Hezkuntza-sistema baten arrakastaren atzean faktore nagusi hau egon ohi da beti: irakasleek prestakuntza, trebetasun, motibazio eta inplikazioa izatea, hain zuzen. Irakasleen prestakuntza estu-estu lotuta dago hezkuntzaren xedeekin eta Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profilekin.

Irakasleen etengabeko prestakuntza nahitaezkoa dela jakin badakigu, horregatik, eskolak, aukera eskainiko die irakasleei, eskola plangintzetan planteatutako helburuak taxuz bete ahal izateko, prestakuntza jasotzeko, bai eskola, bai eskolaz kanpo; eskolan formakuntza saioak antolatuz, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen formakuntza jardueretan parte hartzeko aukera emanez eta Berritzeguneko mintegietan parte hartuz.

4.2. Antolamenduaren esparrua

↳ Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa

Gure ikastetxearen antolakuntzak Euskal Eskola Publikoaren Legeak ezartzen dituen jarraibideak jarraitzen ditu, baita Hezkuntza Sailaren Ikasturte hasierako jarraibideak ere.

IKASTETXEKO ORGANOAK

Barne Erregimeneko Arautegian zehazten dira ikastetxeko organoen betebeharrak eta kompetentziak.

- **Ordezkaritza Organo Gorena (OOG)**

Ikastetxeko gobernu-organua da.

Bertan hartzen dute parte hezkuntza elkarteko sektore desberdinek (irakasleek, gurasoek, zuzendaritza taldeak, udalak, irakasle ez diren langileek). OOGaren ardura da plangintza guztiak, hala gestio mailakoak nola administrazio eta ekonomia alorrekoak, onartzea, eta zentruko jarduera orokorra ikuskatzea.

Gutxienez hiruhilean behin bilduko da. OOGak batzordeak ditu: elkarbizitza batzordea, batzorde iraunkorra eta ekonomia batzordea.

- **Zuzendaritza Taldea**

Ikastetxeko zuzendaritza funtzioak betetzen ditu.

Taldeko partaideak dira

- Zuzendaria: Gestioa, zuzendaritza eta ikastetxeko koordinazio orokorra.
- Ikasketa Burua: Pedagogia alorreko arduraduna.
- Idazkaria: Administrazioa eta gestio ekonomikoa.

Partaide guztien arteko talde-lanaren alde egiten dugu apostu, zuzendaritza koherente, koordinatu eta eraginkorragoa lortzearren.

Zuzendaritza taldeko lanpostu osagarria jantoki arduradun postua da. Honek, jantoki eta sukaldea kudeatzen ditu eta , zerbitzu honetan lan egiten duten langileen arduraduna da. Zuzendariak delegatzen du agintea persona honengan eta bera izango da lotura jantoki, sukalde eta zuzendaritza taldearen artean.

- **Klaustroa**

Ikastetxeko irakasle guztiak partaide diren organoa da. Klaustroak prestatu eta gauzatzen ditu irakaskuntza mailako jarduerak.

Lan teknikoa eraginkorragoa izan dadin, Zikloen egituraren oinarritutako antolabide eredu bat aukeratu dugu. Bertara biltzen dira tutoreak eta aholkularia haien lana bideratzen eta sustatzen ahaleginak egin behar dituzten Koordinadoreen ardurapean. Ikasketa buruaren eta zuzendariaren gidaritzapean antolatzen dira Batzorde Pedagogikoaren barnean. Astearen behin biltzen da eta bertan ziklo guztietako ordezkariak dagoenez, informazioa emateko eta erabakiak hartzeko erabiltzen da.

Nahiz eta momentu honetan lehen hezkuntzako etapa bi ziklotan banatuta egon, gure eskolan hiru zikloko antolamendua mantentzen dugu.

- **Gurasoen Elkartea**

Ikasleen gurasoak Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko bazkide izan daitezke.

IGEk (Ikasleen Gurasoen Elkartea) antolatzen ditu Eskola Kontseiluak onartutako eskolaz kanpoko jarduerak eta jaialdi batzuk. Proposamenak aurkezten dituzte Ikastetxeko organoaren aurrean, hauek erabaki beharreko gaien inguruan.

- **Familiekin harremanak**

Gure helburuak lortu ahal izateko familien eta eskolaren arteko lotura beharrezkoa dala sinesten dugu. Ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapenez informazioa izateko, familiek ondorengo aukerak izango dute: ikasturte hasierako bilerak, banakako elkarrizketak, nota txostenak, posta elektronikoa eta eskolako gida.

Parte hartzeko eredia

Gure Hezkuntza Proiektua irakasleekin, ikasleekin, familiekin (OOG, IGE), eta hezkuntza-komunitateko beste eragileekin konprometitu dago, eta estamentu bakoitzaren hezkuntza-aukeren gaineko aurreikuspenak integratzearen eta osatzearen alde egiten du.

Ikasleen antolamenduari toki garrantzitsua eman nahi diogu eskolan. Dagoeneko, ikasle ordezkarien taldea osatuta dago eta ikasketa buruaren gidaritzapean biltzen da eskolako funtzionamenduan ezinbestekoak diren hausnarketak eta akordioak jasotzeko helburuarekin.

↳ Bizikidetza

Eskolako kide guztientzat errespetu giroa lortzea dugu helburu, denok merezi dugun duintasunezko tratua eskubidea bermatzea, elkarrekiko errespetua, tolerantzia lankidetzaren eta elkartzaren printzipio bezala hartuta.

Eremu honetan, “probentzia” lantzen saiatuko gara, etorkizunean gerta daitezkeen arazoak saihesteko. Hartara, Elkarbizitza Planaren harrera plana zatiari garrantzi handia emango zaio, ikasturte hasieran bi-hiru egunez elkar ezagutzeko eta talde kohesioa lantzeko dinamikak egingo dira. Era berean, gatazkak sortzen direnean jarduteko protokoloak erabiliko ditugu konponbidea emateko. Epe luze izango da eta urteko plan zehatzetan garatuko da.

5. Indarraldia eta mantentzea

Hezkuntza Proiektua eta bere azpi dokumentuak (Hizkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Elkarbizitza plana...) dokumentu biziak dira eta etengabeko hausnarketa eskatzen dute.

Gutxienez lau urterik behin hezkuntza-komunitateak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errebisatuko du. Tartean, edozein momentuan egingo dira behar diren aldaketak.

